

## **LGTB+ BIZITZEK BALIO DUTE**

Maiatzaren 17an, LGTB+fobiaren kontrako egunaren ondoren, pasa berri da ekainaren 28an, LGTB+ harrotasunaren eguna.

Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakerek eta manipulazioak zein eskuin muturreko diskurtsoek cis-hetero arautik ateratzen diren bizitzak ezabatu nahi dituen honetan, inoiz baina garrantzitsuagoa da nondik gatozen ospatzea eta aldarrikatzea. Stonewalletik Euskal Herrira, milaka bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu, baina oraindik egiteko asko dago. Eraso LGTB+fobikoen datuak gora doaz, armairuak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira... eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.

Honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... ezartzea ezinbestekoa dugu. Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta estrukturalak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da.

Zaldibiako Udaletik, herriko talde feminista eta LGTB+ mugimenduko kideekin batera, baita eskualdeko gainerako herrieekin ere, lan egiteko konpromisoa hartzen dugu eta denon artean, erreferente eta norbanako ezberdinak aktibatze modua sustatuko dugu.

Ekainaren 28ko mobilizazioak pasa badira ere, LGTB+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko modukoa delako!

Gure bizitzek balio dutelako, gora Ekainaren 28a!

Zaldibian, 2022ko uztailaren 6an.